| Era berean, esan du arretako eta esku hartzeko ereduak pertsona bakoitzaren ezaugarrietara egokitu nahi duela eta, ahal den neurrian, arreta ohiko ingurunean edo etxean ematea dela helburua. Gehitu duenez, jarraitutasuna eman nahi zaio arreta pertsonalizatuko planari, eta nabarmendu du oso garrantzitsua dela erreferentziazko langilea esleitzea kasu bakoitzean (nor izango den koordinatzailea eta solaskidea). Azaldu du esku-hartze soziala diziplinartekoa dela eta prebentzioko ikuspegia txertatu behar dela aipatu du. Jarraian, hiriko zahartze tasei eta horien bilakaerari buruzko zenbait datu adierazi ditu, eta adinekoentzako prestazio eta zerbitzuen katalogoa xehatu du, ondoren: Udalekoak, Foru Aldundikoak eta erkidegokoak. Zehazki, Udalekoei dagokienez, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonen kopurua zehaztu du: etxeko laguntza zerbitzua, mendekotasunaren balorazioa (MBB + GEA), egoitzetan dauden pertsonak, udalaren bizitokietan daudenak, zentro soziosanitarioetan daudenak, eguneko zentroetan daudenak, prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenak (PEAP/PECE, PEVS, PNC), laguntza teknikoak, telelaguntza edo gizarte-larrialdiko laguntzak jasotzen dituztenak. | Señala, así mismo, que el modelo de atención y de intervención pretende adaptarse a las características de cada persona, pretende también, siempre que se pueda, desarrollar la atención en el entorno habitual o domicilio. Añade que se intenta darle una continuidad al plan de atención personalizada y hace hincapié en la importancia de la asignación de personal de referencia (quien va a ser la/el coordinador e interlocutor) en cada caso. Manifiesta que la intervención social tiene carácter interdisciplinar y alude a la incorporación del enfoque preventivo. A continuación, detalla algunos datos sobre los índices de envejecimiento de la ciudad y su evolución y procede a desglosar el catálogo de prestaciones y servicios destinados a las personas mayores, los de competencia municipal, aquellos de competencia foral y los de competencia autonómica. En concreto, respecto a los de competencia municipal detalla el número de personas que se acogen a dichos servicios: servicio de ayuda domiciliaria, valoración de la dependencia (BVD + RAI), personas en centros residenciales, en alojamientos municipales, en centro socio-sanitario, centros de día /centros de atención diurna, personas que reciben prestaciones económicas (PEAP/PECE, PEVS, PNC), ayudas técnicas, teleasistencia o ayudas de emergencia social. |
| Bestalde, adinekoen parte-hartze aktiboa sustatzeari dagokionez, honako hauek aipatu ditu: adinekoak beren kabuz antolatzeko aukera babestea (erretiratuen 23 elkarteri laguntza emanez), gizarte eta kultura arloko partaidetza sustatzea, bizitza osorako ikaskuntzako ekimenak babestea (ACEX, Helduen Hitza...) eta Topalekua zentroa. | Por otra parte, y en lo referente a la promoción de las de participación activa de las personas mayores, cita el apoyo a la auto-organización de las personas mayores (a través de la colaboración con 23 asociaciones de personas jubiladas), la promoción de la participación social y cultural, el apoyo a iniciativas de aprendizaje para toda la vida (ACEX, Helduen Hitza,..) y el centro Topalekua. |

| | |
|---|---|
| Lehen mailako arretako estalduraren datuak eman ditu, 65 urtetik gorako pertsonei buruz; hala, adierazi du azken 5 urteotan gizarte zerbitzuak, nolabait, pertsona horien erdiekin jarri direla harremanetan, eta horietan zaharrenak direnen (85 urtetik gorakoekin) % 91 baino gehiagorekin. | Aporta los datos de cobertura de la atención primaria a las personas de 65 o más años, señalando que en los últimos 5 años los servicios sociales se han puesto en contacto, de distintas maneras, con casi la mitad de dichas personas y de éstas, con las personas más mayores (85 y más años), con más del 91%. |
| Amaitzeko, erronkei buruz hitz egin du. Pertsonak zahartu egiten dira, eta hori erronka bat eta aukera bat da, ikuspegi komunitariotik; ildo horretan, lanaz hitz egiten da, baina ez hainbeste gizarteaz. Lidergoa eta inplikazio kolektiboa behar da aurrean ditugun erronkei aurre egiteko: zainketen etorkizuna indartzeko premia, prebentzioan eta aurrea hartzean lan egiteko beharra eta landu beharreko gaien (osasuna, etxebizitza, diru-sarreren bermea) koordinazioan eta lankidetzan sakontzekoa, zertarako eta herritarrengana efizientzia handiagoaz heltzeko eta kasu larrien aurrean erreakzio ahalmena eta erakundeen koordinazioa hobetzeko. Zainketako tokiko inguruneak garatu, etxeko arreta indartu eta komunitatea aktibatzeko erronka; gehitu duenez, gure etxean ahalik eta denbora gehien egoteko aukera emateak «gizarte osoa» nahasten du, ez administrazioa soilik. | Finaliza hablando de los retos. Las personas envejecen y esto es un reto y una posibilidad desde el punto de vista comunitario; en este sentido, se habla del trabajo, pero no tanto de la sociedad. Se necesita liderazgo e implicación colectiva para asumir retos como la necesidad de reforzar el futuro de los cuidados, de trabajar en la prevención y anticipación, profundizar en la coordinación y colaboración de los distintos sistemas (salud, vivienda, garantía de ingresos,…) para llegar con más eficiencia a la ciudadanía, mejorar la capacidad de reacción y coordinación institucional ante casos urgentes. El reto del desarrollo de entornos locales de cuidado, y de reforzar la atención en el domicilio y la activación comunitaria, donde, añade, que posibilitar el estar en nuestra vivienda el mayor tiempo posible es algo que implica a “toda la sociedad”, no sólo a la administración. |
| Jarraian, Pilar Lekuonak Ainhoa Arrillagari eman dio hitza, 18:09an. | A continuación, Pilar Lekuona cede la palabra a Ainhoa Arrillaga a las 18:09. |
| Ohiko aurkezpena egin eta agurtu ondoren, Ainhoa Arrillagak Matia Institutuan egiten duten hausnarketa azaldu du, aurkezpen bat erabiliz. | Tras la presentación y el saludo de rigor, Ainhoa Arrillaga plantea su reflexión desde el Instituto Matia, apoyada en una presentación. |
| Haren hitzetan, zahartzea aukera bat da, eta mota honetako galderak egiten dizkio bere buruari: zergatik da zahartzea zama bat? Haren ikuspegitik, erronka bat da, baina baita aukera bat ere. Azaldu du zahartzea oso etapa luzea dela, eta heterogeneoena izan daitekeela; alabaina, estereotipoz beteta dagoela. Nolanahi ere, gehitu duenez, adinekoek bizi osoko esperientziak eta ezagutzak pilatu dituzte, belaunaldi berriak hazten eta hezten lagundu dute eta, aldi berean, ekonomikoki laguntzen diete | Considera el envejecimiento como una oportunidad y se cuestiona preguntas como ¿Por qué el envejecimiento es carga?, desde su perspectiva es un reto, pero también una oportunidad. Señala que el envejecimiento es una etapa muy larga y que puede ser la más heterogénea, pero que también es una etapa llena de estereotipos. Sin embargo, continúa, las personas mayores acumulan experiencia y conocimientos de toda una vida, ayudan a criar y educar a las nuevas generaciones, al tiempo que |

| | |
|---|---|
| etorkizuneko belaunaldiei, boluntariotzako ekintzetan parte hartzen dute eta kultura eta tradizioak transmititzen dituzte, besteak beste. | apoyan económicamente a generaciones próximas, participan en acciones de voluntariado y realizan la transmisión de cultura y tradiciones, ente otras contribuciones. |
| Ikuspegi sistemiko bat defendatzen du esku-hartze sozialean, eta garrantzia ematen dio sareari, komunitateari. Azpimarratu du oso garrantzitsua dela eragileak, osasun sistema eta gizarte zerbitzuak koordinatu eta integratzea, eta komunitatea zainketetan ere inplikatzea. Baina ez soilik mendekotasun egoera iristen denean, askoz ere lehenago baizik, bizitzaren ibilbide osoan. Azpimarratu duenez, «adineko batentzat lagunkoia dena, adin guztietarako da lagunkoia. Aulki gurpildun batean doan pertsona batentzat irisgarria dena, guztiontzat da irisgarria». | Propugna un enfoque sistémico en la intervención social y pone en valor la red, la comunidad. La importancia de la coordinación e integración de los agentes, del sistema sanitario y de servicios sociales y de la implicación de la comunidad, también en los cuidados. Pero no solamente los cuidados cuando llega la situación de dependencia, sino mucho antes, durante todo el recorrido vital. Hace hincapié en que "lo amigable para una persona de edad, es amigable para todas las edades. La accesibilidad para una persona en silla de ruedas, es accesibilidad para todos nosotros". |
| Jarraian, boluntarioak aipatu ditu; hala, azaldu du Gipuzkoako herritarren % 10 inguruk boluntariotzako jardueratan hartzen duela parte, eta uste du boluntario horiek zaindu ere egiten dutela. Beraz, gizartea aktibatzearen eta boluntariotza agerian jarri eta integratzearen alde egiten du. José Turnék (Nagusilaneko boluntarioa) *MatiaZaleak: Zure etxea* dokumentalean esandako hitzak aipatu ditu: «jendeak uste du egoitzetan daudenak bertan utzita daudela, aparkatuta. Bada, zer egiten dugu guk? TAOko langileak bagina bezala, isunak kentzen ditugu, jendea aparkalekutik atera, besterik ez. Mugitu, ibili, egin barre, bizi, gora bizitza». | Seguidamente y refiriéndose al voluntariado, señala que en Gipuzkoa aproximadamente el 10% de la población participa en tareas de voluntariado y considera que esas mismas personas voluntarias también cuidan, abogando por activar la sociedad y por visualizar e integrar el voluntariado. Cita las palabras de Jose Turné (voluntario de Nagusilan) en el documental "MatiaZaleak: Zure etxea: "existe la idea de que la gente que está en una residencia, es gente que está aparcada. Pues, ¿qué hacemos nosotros? De agente de la OTA, vamos quitando multas, Desaparcando a la gente, nada más. Circulen, caminen, anden, rían, vivan, viva la vida". |
| Zainketen gaiari berriz helduz, adierazi du oso lan duina dela, eta benetan beharrezkoa; haren hitzetan, aitortu eta sozializatu beharreko lana da, eta domotikak eta teknologiak ezin ditu premia guztiak ase. | Retomando el tema de los cuidados, afirma que es un trabajo muy digno, y muy necesario, una labor que debe de reconocerse y debe socializarse, y añade que la domótica y la tecnología no pueden cubrir todas las necesidades. |
| Amaitzeko, zahartzearekin lotutako estereotipoak aipatu ditu, eta esan du hizkuntza zaindu eta adinkeriari buruz hezi behar dugula (Robert Butlerrek hitz egin zuen lehen aldiz horri buruz, 60ko hamarkadan); hala, bertaratutakoei galdetegi bat | Finaliza refiriéndose a los estereotipos vinculados con el envejecimiento, señalando que hay que cuidar el lenguaje y educar sobre el "edadismo" (término acuñado por Robert Butler en los 60) e invitando a las personas presentes a realizar un cuestionario, una |

| | |
|---|---|
| egiteko gonbita egin die, «adinkeria kalkulatzeko», *Soy Mayor Soy Como Tu* webgunean. Iturria: Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioa: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Prevencion/EnvejecimientoSaludable_Fragilidad/BuenTrato_Edadismo.htm. Eta, zenbait esperientzia azalduz, ongizatea sortzeko gaitasuna nabarmendu du, eta boluntarioek zainketekiko duten jarrera azpimarratu du: «besteentzat erabilgarria zara, eta sistemarentzat erabilgarria zara». | “calculadora sobre edadismo” en la web de Soy Mayor Soy Como Tu. Fuente: ministerio de sanidad del gobierno de España: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Prevencion/EnvejecimientoSaludable_Fragilidad/BuenTrato_Edadismo.htm. Y, comentando varias experiencias, hace hincapié en la capacidad de generar bienestar y pone en valor la actitud de los cuidados, del voluntariado, “eres útil para los demás y eres útil para el sistema”. |
| 18:21ean, Pilar Lekuonak berriz ere hitza hartu du eta, «Lidergoa Donostian gizarte eta osasun arretan» aurkezpena erabiliz, aurrean dugun erronka demografikoa ikusita, gizarte eta osasun sistema integratuko dituen erakunde bat behar dugula adierazi du. | A las 18:21, Pilar Lekuona retoma a palabra y apoyándose en la presentación “Liderazgo de Donostia en la atención social y sanitario” pone en foco en la necesidad de un ente, un ejercicio integrador de los sistemas social y sanitario, con el reto demográfico que tenemos. |
| Zenbait galdera egin ditu: norbaitek ditugun adinekoen egoitzak egokiak diren edo ez, edo pertsonak etxean ondo eta bitarteko egokiekin artatzen ditugun pentsatu badu, non egon nahiko du gutako bakoitzak? Behar adina plaza egongo dira etorkizunean? Zer da garestiagoa, etxeko gizarte- eta osasun-arreta ala egoitzakoa? Azaldu duenez, bi arloetan lanean ari direnek uste dute hala etxeetarako nola egoitzetarako arreta eredu bat finkatu behar dela. Artatzen diren pertsonen % 4 soilik artatzen dira egoitzatan, eta hirian 1.700 pertsona inguru artatzen dira. | Lanza una serie de preguntas: Si alguien ha pensado si las residencias geriátricas que tenemos son las adecuadas o no, o si atendemos en su domicilio a las personas, con los recursos apropiados, ¿dónde querremos estar cada uno de nosotros, ¿habrá suficientes plazas en el futuro?, ¿Sale más cara la atención social y sanitaria en casa o en una residencia? Señala que las personas que están trabajando en ambos ámbitos consideran que es necesario definir modelo de atención tanto para domicilios, como para residencias. Solamente el 4% de las personas que se están atendiendo están en residencias y en la ciudad están siendo atendidas unas 1.700 personas. |
| Ondoren, adierazi du Ongizate Estatu bat nahi dugula eta prebenitzea beharrezkoa dela, baina baita balioak indartzea eta gaztetatik heztea ere; Agenda Nagusia aipatu du (2019tik dago). Azaldu du pandemiak zenbait sinergia utzi dizkigula, aurrera goazela eta zenbait gako ditugula pertsona eta pertsonaren bizikidetza-nukleoa erdigunean jartzeko, laguntza erlazionala emateko eta eguneroko kudeaketarako. Gizarte- eta osasun-zerbitzuek erakunde erantzuna ematen dute eta konponbideak eta laguntzak ematen | Continúa añadiendo que queremos un Estado de Bienestar y que hay que prevenir, pero también reforzar los valores, educar desde jóvenes, cita la Agenda Nagusi (que existe desde 2019); señala que la pandemia nos ha dejado sinergias, que vamos avanzando y tenemos unas claves para poner a la persona y su núcleo de convivencia en el centro de la “diana”, facilitar ayuda relacional, para su gestión cotidiana. Los servicios sociales y sanitarios proporcionan la respuesta institucional y aportan |

| | |
|---|---|
| dituzte, eta beste zerbitzu publiko batzuekin eta ekimen pribatuarekin batera, beste eragile bat dira.<br><br>Nabarmendu duenez, eredu honek arau esparru bat eskatzen du, zeinak sinergiarik hoberenak lortzeko koordinazio mekanismoak eta gunea finkatuko dituen, eta «erakunde integratzaile» bat behar da. Azpimarratu du zahartzea ez dela sendatzen eta «zahartzen goazen heinean, uneren batean zaindu beharko» gaituztela. Bestalde, gizarte zerbitzuek artatzen dituzten profilak (mendekotasun egoera aitortua duten pertsonak; dolu egoeran edo trauma ondorengo estres egoeran daudenak; baztertzeko arriskuan dauden taldeetan daudenak; zaurgarritasun egoeran dauden familiak, adingabeak eta etorkinak; gaixotasun mental larria duten pertsonak; narriadura progresiboa duten 80 urtetik gorako pertsonak eta bakarrik bizi direnak...) eta osasun zerbitzuek artatzen dituztenak (gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pertsonak; adineko zaurgarriak; paziente geriatrikoak; ebakuntza ondoko pazienteak edo desgaitasun handia sortzen duten gaixotasun akutuak dituztenak; gaixotasun neurologikoak dituztenak; nahasmendu mentalak edo desgaitasun intelektuala dutenak; minarentzat tratamendu espezializatua behar dutenak...) zerrendatu ditu. Askotariko egoerak eta profil konplexuak daude, eta lidergoak eskatzen dituzte, defendatzen den eredu integratzaile horretan. Azaldu duenez, «diziplinarteko profesionalez, zerbitzu hornidurez, finantzaketaz eta funtzio erregulatzaileaz doa kontua», eta adierazi du balioespeneko tresnak eta helburu erkideak falta direla, eta eskumenak, rolak eta adierazle erkideen sistemak hobeto hobeto zehaztu behar direla. Era berean, gehiago garatu behar dira zainketen arloko eskumenak, arretako programen diseinua eta zaintzaileen eskumenak, eta berrikuntzaren, teknologia berrien eta erakundeen aldetiko finantzaketaren aldeko apustua egin behar da. Jarraian, Espainiako osasun arloko profesionalei eta gizarte zerbitzuei buruzko grafiko bat erakutsi du. | soluciones y apoyos, junto con otros servicios públicos y la iniciativa privada es un agente más.<br><br>Hace hincapié en que este modelo requiere un marco normativo, que fije los mecanismos de coordinación y espacio para obtener las mejores sinergias y en que es necesario “un organismo integrador”. Insiste en que el envejecimiento “no se cura” y que “a medida que nos hacemos mayores, en algún momento te tendrán que cuidar”. Por otra parte, enumera los perfiles que se atienden desde los servicios sociales (personas con reconocimiento en situación de dependencia, en situaciones de duelo o estrés postraumático en colectivos de riesgo de exclusión, familias, menores o migrantes en situación de vulnerabilidad, personas con enfermedad mental grave, mayores de 80 años con deterioro progresivo y que viven solas,…) y los servicios sanitarios (personas con enfermedades crónicas avanzadas, mayores frágiles, pacientes geriátricos, personas en postoperatorio o con enfermedades agudas que causan gran discapacidad, con enfermedades neurológicas, trastornos mentales o discapacidad intelectual, que requieren tratamiento especializado del dolor,…). Múltiples situaciones, perfiles complejos que requieren liderazgos en este modelo integrador que están propugnando. Y apunta que “esto va de profesionales interdisciplinares, de provisión de servicios, de financiación y de función reguladora”, añadiendo que faltan instrumentos de valoración, objetivos comunes, con una mayor definición de competencias, roles, sistemas de indicadores comunes; un mayor desarrollo de las competencias en los cuidados y el diseño de programas de atención, el desarrollo de las competencias de las cuidadoras, la apuesta por la innovación y las nuevas tecnologías y la cuestión de la financiación desde las distintas instituciones. Muestra seguidamente un gráfico sobre los profesionales de sanidad y servicios sociales en España. |

| | |
|---|---|
| Nabarmendu du ezinbestekoa dela elkarrizketa sozial eta politiko bat izatea, hots, eragile politiko eta sozialen arteko eztabaidarako gune bat sortzea. Modu eraginkorragoan kohesionatu eta koordinatzeko. Bibliografian aurki daitezkeen nazioarteko esperientziak aipatu ditu, esaterako, Iparraldeko herrialdeetakoa, hots, Danimarkakoa eta Finlandiakoa, baita Alemaniakoa eta Erresuma Batukoa ere, eta Mediterraneoko herrialdeetakoa, esaterako, Italiakoa eta Frantziakoa. | Recalca que es imprescindible el diálogo social y político, crear un espacio de debate entre agentes políticos y sociales. Para cohesionar y coordinar de manera más efectiva. Cita experiencias internacionales de la bibliografía, como los países nórdicos, como Dinamarca o Finlandia, o Alemania, Reino Unido, o países mediterráneos, como Italia o Francia. |
| Azpimarratu duenez, eredua gorabehera, funtsezkoa da pertsona eta haren bizikidetza ingurunea komunitate testuinguruan jartzea, pertsona sistemaren erdigunean egotea, haren laguntza premiak identifikatzeko eta eman beharreko erantzunak diziplinarteko taldeekin koordinatuta antolatzeko; halaber, diskurtsoa agenda politikoan txertatzeko premia nabarmendu du. | Insiste en que, con independencia del modelo, es clave poner a la persona y su entorno de convivencia en el contexto comunitario, que la persona esté en el centro del sistema, para identificar sus necesidades de apoyo y articular respuestas coordinadas con los equipos interdisciplinares e insiste también en la necesidad del discurso en la agenda política. |
| Gizarte Kontseilura dakarren proposamenak Donostiako Udala horren buru izatea planteatzen du: agintea har dezan, Plan Estrategikoaren barruan koordinatzeko. Aitzindaria izan daiteke. Gehitu duenez, kontua ez da beste talde bat egitea; aldiz, emandako pausoetan oinarrituta eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik abiatuta, Ongizate Estatuaren etorkizunerako ardatz estrategikorik egokiena zein izango zen jorratzea. | La propuesta que trae al Consejo Social plantea que Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián lidere esto, puede ser pionero, que tome las riendas para coordinarnos dentro de su Plan Estratégico. No se trata de hacer un equipo más, añade, sino de en base a los pasos dados y con un enfoque multidisciplinar, abordar cuál sería el eje estratégico ideal para el futuro del Estado de Bienestar. |
| Amaitzeko, bereziki eskerrak eman dizkie hausnarketa prozesu horretan parte hartu dutenei: Eva Salaberria, Garikoitz Agote, Ainhoa Arrillaga, M. Soledad Arzallus, Elena Luquin, Oihana Zarra, Amaia Irazusta, Ricardo Díaz, Almudena Esteberena, M. José Larrea, Toñi López eta Aitziber San Roman, eta edozein azalpen emateko prest agertu da. | Concluye agradeciendo especialmente a quienes han participado en este proceso de reflexión: Eva Salaberria, Garikoitz Agote, Ainhoa Arrilaga, Mª Soledad Arzallus, Elena Luquin, Oihana Zarra, Amaia Irazusta, Ricardo Díaz, Almudena Esteberena, Mª José Larrea, Toñi López y Aitziber San Roman, y ofreciéndose para cualquier aclaración. |
| 18:37ean, Gizarte Kontseiluaren presidenteak hizlariak zoriondu ditu egindako lan zoragarriagatik, eta nora goazen galdetu die. | A las 18:37 el Presidente del Consejo Social felicita a los ponentes por el magnífico trabajo realizado y les pregunta hacia dónde podemos estar dirigiéndonos. |

| | |
|---|---|
| Donostiako alkate Eneko Goiak hartu du hitza eta adierazi du hitzaldiak hausnartzera eraman duela, baita zenbait gai zalantzan jartzera ere, esaterako, zahartze politikak; halaber, gehitu du politikak pertsonei buruz direla, eta adina ez dela elementu homogeneizatzaile bat, agian pertsonei buruz, egoerari buruz, mendekotasun mailari buruz hitz egin beharko genukeela, baina ez adinari buruz. Bere buruari galdetu dio nork nahiko lukeen egoitza batera joan, behar-beharrezkoa ez balitz, eta ondorioztatu du mendekotasuna dela, eta ez adina, pertsona bat egoitza batean sartzera eramaten duela. Hala, ikuspegi hori aldatzeko beharra planteatu du. | El alcalde Eneko Goia toma la palabra y señala que la exposición le hace reflexionar e incluso cuestionarse determinados temas, como las políticas de envejecimiento, añade que las políticas son sobre las personas y que la edad no es un elemento homogeneizador; que igual deberíamos hablar de personas, de situación, de grados de dependencia,... pero no de edad. Se pregunta, quien quiere ir a una residencia si no es estrictamente necesario y, concluye, que es la dependencia y no la edad lo que determina este ingreso, y se platea la necesidad de cambiar el enfoque. |
| Jarraian, Ainhoa Arrillagak hartu du hitza, eta gehitu du muturreko egoeratan egoitzak beharrezkoak izango direla (askotariko arrazoiengatik), baina norberaren etxean geratzearen alde egin du, pertsonak hala nahi badu eta ahal bada. | A continuación, toma la palabra Ainhoa Arrillaga y añade que en situaciones extremas las residencias serán necesarias (por distintas causas), pero aboga por la permanencia en la vivienda propia, mientras la persona así lo desee y sea posible. |
| Eva Salaberriak partaidetza eta eraikuntza kolektiboaz hitz egin du; hala, adibidez, hiri hau hemendik 20 edo 25 urtera nola izango den pentsatzen ari diren pertsona oso zaharrak aipatu ditu, eta aipatu du eskuzabaltasun horren garrantzia azpimarratu behar dela; haren ikuspegitik, zahartzearekin lotutako errealitateak adinaz gaindi doazen gauzak azpimarratzen ditu, esaterako, bizimodu desberdinei buruz ari garenean, edo zainketei eta zaurgarritasunari hitz egitean, eta hori guztia gauza asko berriz pentsatzeko aukera bat da. | Eva Salaberria habla de la participación y la construcción colectiva, se refiere, por ejemplo, a personas muy mayores que están pensando cómo puede ser esta ciudad dentro de 20 o 25 años, y señala que esa generosidad hay que ponerla en valor; desde su punto de vista, la realidad que tiene que ver con el envejecimiento está señalando cosas que transcienden de la edad, por ejemplo cuando hablamos de modelos y formas de vivienda diferentes, o cuando hablamos de cuidados y vulnerabilidad,...., y todo esto es una oportunidad para repensar muchas cosas. |
| Garikoitz Agote bat dator Ainhoa Arrillagarekin, eta uste du bizi osorako etxebizitzen etorkizun baterantz goazela; horrek aldaketa handia ekarriko du, laguntza behar duten pertsonei dagokienez, eman beharko diren baliabide publiko, pribatu eta erlazionalen gainean, eta sistemaren jasangarritasunari dagokionez. Nabarmen aldatuko beharko da zainketen eredua, eta ezingo da epe laburrean egin; aldi berean, erantzun kolektiboa eman beharko da zainketak etxean emateko. | Garikoitz Agote comparte con Ainhoa Arrilaga que vamos hacia un futuro de vivienda para toda la vida, lo que supone un cambio significativo, en cuanto a personas que requieren apoyo, sobre los recursos de carácter público, privado, relacional, que deban prestarse y la cuestión de la sostenibilidad del sistema. Supone una transformación importante sobre el modelo de los cuidados, que no parece que pueda realizarse en un corto plazo, y, al mismo tiempo, |

| | |
|---|---|
| | requiere una respuesta colectiva para poder ofrecer cuidados con apoyos en domicilio. |
| Pilar Lekuonak adierazi du hausnarketa garrantzitsu bat dagoela egoitzen ereduari buruz: gero eta espezializatuagoa izan behar da, hots, egoitzetako langileek gero eta prestakuntza handiagoa behar dute. Egoitzen eta erabiltzaileen profila gero eta konplexuagoa da; era berean, EAEko lurralde bakoitzak errealitate desberdina du, eta Gipuzkoak ingurunetik ez urruntzeko apustua egin du. | Pilar Lekuona señala que hay una reflexión importante sobre el modelo de residencias, cada vez hay que ser más especializado, las personas que trabajan en ellas tienen que estar cada vez más formadas. El perfil de las residencias, de las personas usuarias, es cada vez más complejo; así mismo, cada territorio vasco tiene una realidad diferente, Gipuzkoa apuesta por no alejar del entorno. |
| Gizarte Kontseiluko kideek nabarmendu dute etengabe bilatzen direla administrazio publiko guztiekin lankidetzan aritzeko eta sinergia izateko bideak; adierazi da erronka hori Europa osoan dagoela. Halaber, azaldu dute beharrezkoa dela «elkar ulertzen ikasteko mekanismoak lantzeko gobernantza bat» bilatzea, arreta lan kooperatiboan eta proaktiboak izatean jarrita. Bestalde, beste gai batzuk ekarri dituzte, esaterako, «75 urterekin erretiratzearen» gaia. | Desde las personas que participan en el Consejo Social se subraya la constante búsqueda de vías de colaboración y sinergias con todas las administraciones públicas; se señala que este reto lo tenemos en toda Europa. Se habla también de la necesidad de buscar "una gobernanza en la que trabajar mecanismos para aprender a entendernos", poniendo el foco en el trabajo cooperativo, en ser proactivos. Por otra parte, se traen a colación otras cuestiones, como "la jubilación a los 75 años". |
| 18:53ean, Gizarte Kontseiluaren presidenteak Kepa Kortari gai-zerrendako hurrengo gaia jorratzeko deia egin dio. | A las 18:53 el Presidente del Consejo Social emplaza a Kepa Korta a abordar el siguiente punto del orden del día. |
| **5. E2030DSS Estrategia** | **5. Estrategia E2030DSS** |
| Donostiako Estrategia Bulegoko zuzendari/koordinatzaileak hitza hartu du, E2030DSS Estrategia prestatzen egindako prozesua laburtzeko, «non gaude?»: Apustu jokalekua prestatu ondoren, helburuak eta ardatz estrategikoak diseinatu ziren Plan Estrategikorako Lan Batzordearekin; gogorarazi du, halaber, pandemia bitartean prozesu bat egin zela helburuetan ondo jasota ez zeuden alderdiak egon zitezkeen identifikatzeko, pandemiaren ondorioak ikusita. Orain, zikloa ixten ari da, aipatutako helburu estrategikoetarako eta proiektuetarako garatu beharreko ildo estrategikoak txertatzen. | El director/coordinador de la Oficina de Estrategia de Donostia / San Sebastián toma la palabra para brevemente resumir el proceso realizado en elaboración de la Estrategia E2030DSS, "dónde estamos": Una vez elaborado el escenario apuesta, se fijaron los objetivos y ejes estratégicos con la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico; recuerda también que en el transcurso de la pandemia se realizó un proceso para identificar si había aspectos que no estuvieran bien reflejados en los objetivos a la vista de las consecuencias de la pandemia y ahora se está cerrando el ciclo, incorporando las líneas estratégicas que se deberán desarrollar para los mencionados objetivos estratégicos y los proyectos. |

| | |
|---|---|
| Aurreratu du urriaren 25ean Plan Estrategikorako Lan Batzordea bilduko dela; aurrez dokumentu bat igorriko zaie eta horren gainean ekarpenak egin ahalko dituzte bildu aurretik; biltzarretik aterako den dokumentua azaroaren 4ko Gizarte Kontseilura ekarriko dute, eta orduan hitz egingo dugu 2030 Estrategiaz. | Adelanta que el 25 de octubre se reunirá la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico sobre la base de un documento que se remitirá previamente y sobre el que podrán realizar aportaciones antes de la reunión; el documento que salga de la reunión vendrá al consejo Social el día 4 de noviembre, que será el día que se hablará de la Estrategia 2030. |
| Azaldu duenez, prozesua pixka bat zaila izaten ari da, bileretarako mugen ondoriozko inguruabarrak direla-eta, baina une egokia da «bestalde irekia izango den estrategia bat ixteko»; izan ere, hurrengo urteetako eraldaketak garrantzitsuak izango dira. Horregatik, jarraipeneko sistema bat txertatzea proposatzen da, errealitate horri aurre egiteko egin beharreko aldaketak identifikatu ahal izateko. | El proceso está siendo un poco complicado, añade, por las circunstancias derivadas de las limitaciones para las reuniones, pero es un buen momento para "cerrar una estrategia que, por otra parte, va a ser abierta", porque las transformaciones de los próximos años van a ser importantes; es por ello que se propone la incorporación de un sistema de seguimiento para poder identificar los cambios que habrá que realizar para poder afrontar esta realidad. |
| Halaber, gogorarazi du Plan Estrategikorako Lan Batzordea osatzen duten 36 kideetatik 30 pertsona Gizarte Kontseiluan daudela. | Recuerda, así mismo, que de las 36 personas que conforman la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico, 30 personas forman parte del Consejo Social. |
| **6. Galde-eskeak** | **6. Ruegos y preguntas** |
| Daniel Zulaikak hartu du hitza, eta galde-eskeen txandari eman dio hasiera; ekarpenik egon ez denez, saioari amaiera eman dio. | Daniel Zulaika toma la palabra y abre el turno para preguntas y/o comentarios; al no haber aportaciones se procede al cierre de la sesión. |
| **7. Bilkura amaitzea** | **7. Cierre de la sesión** |
| Esker oneko hitzen ondoren, Gizarte Kontseiluko presidente Daniel Zulaikak amaiera eman dio bilerari 18:57ean. | Tras agradecer la asistencia, el Presidente de Consejo Social, cierra la sesión, a las 18:57 h. |

Donostia / San Sebastián, 2021/10/06